



Euskadiko enplegu datuen balorazioa uztaila 2025
Enplegu zuzendaria, Arantza Martínez Tobalina

Euskadik 3.074 langabe gutxiago erregistratu ditu 2024ko uztailan baino, eta 10 hilabeteko joera positibo iraunkorra berretsi du

78.743 kontratu berri sinatu dira Euskal Autonomia Erkidegoan, ekainean baino % 4,9 gehiago eta 2024ko uztailan baino % 16,3 gehiago. Horietatik 18.230 mugagabeak izan dira (% 23,2)

Uztailak gorabehera handirik gabeko portaera, ñabardurekin, uzten du euskal lan-merkatuan, urtaroko eta unean uneko faktoreek baldintzatuta. Langabeziak gora egin du ekainarekin alderatuta, eta 104.991 langabe gehiago daude, hau da, 1.600 langabe gehiago (+1,55 %). Egoera hau azken hiru urteetan errepikatu egin da. Hala ere, urte arteko terminoetan, joerak islatzen dituztenak alegia, bilakaera positiboa izaten jarraitzen du hamargarren hilabetez jarraian: Euskadik 3.074 langabe gutxiago ditu 2024ko uztailan baino (-2,84%), eta honek lan-merkatuak etengabe hobetzeko joera duela erakusten du.

Urte arteko saldoari dagokionez, langabezia gehiago jaisten da gizonen artean portzentajezko balioetan (-1.447, - %3,20), eta balio absolutuetan zertxobait gehiago emakumeen artean (-1.627, - %2,59).

Jardueraren arabera, beherakadarik handiena aurreko enplegurik ez zuten pertsonetan gertatu da, bai hilekoetan (- 293, - %2,05), bai urte artekoetan (- 624, - %9,32). Igoera handiena, aldiz, hezkuntza sektorean gertatu da (+ 905, %29,4), egoera puntual eta ohikoa ikasturte amaiera bakoitzean.

Hileko bilakaeran, iraupen luzeko langabeziak behera egin du (104 pertsona gutxiago), eta % 49,8 da (ekainean baino 0,8 puntu gutxiago). Urte arteko datuei erreparatuz gero, iraupen luzeko langabezia 1.276 pertsona gutxiago daude (-% 2,38) eta iraupen laburreko langabezia 1.798 gutxiago (-% 3,3).

Kontratuak eta Gizarte Segurantza

Kontratazioari dagokionez, dinamismoak gora egiten jarraitzen du uztailan, % 4,9 hazi baita aurreko hilabetearekin alderatuta, eta % 16,3 urte artekoa, 78.743 kontratu formalizatu baitziren. Kontratazio mugagabea guttizkoaren % 23,2 izan zen, eta % 20tik



gorako zifra kontsolidatu zuen, lan-erreformaz geroztik egonkor mantentzen dena. Kontratu mugagabeen proportzioak ehuneko 2,0 puntu egin du gora ekainarekin alderatuta; aurreko joerekin hautsiz, eta ehuneko 2,2 puntu 2024ko uztailarekin alderatuta.

Kontratazioaren errekupeazio orokorraren egoera honetan, aurreko hilabeteekin alderatuta, kontratatutako pertsonen % 48,8k 30 urte baino gutxiago ditu, eta emakumeak kontratatutako pertsonen erdia baino gehiago dira; honek orain arte ikusitako joeraren aldaketa dakar. Emakumezkoei dagokienez, 45 urtetik gorako emakumeen taldeak gorakada handia izan du urte batetik bestera kontratazioan (%26,14), baita hilabete batetik bestera ere (%21,9).

Sektorekako analisisian, aipatzekoa da ostalaritzan urtaroen araberako joera aldatu egin dela; izan ere, aurten, kontratazioaren igoera ekainera aurreratu da. Hala ere, kontratu mugagabeen portzentaje handi bat mantendu da (%35,2), eta gora egin du joan den hilabetearekin alderatuta. Urte batetik bestera eta hilabete batetik bestera hazkunde handia izan duten sektoreak informazioa eta komunikazioak eta etxeetako jarduerak izan dira, azken hau kontratazio mugagabeen ehuneko onena izan du.

Gizarte Segurantzako afiliazioari dagokionez, Euskadin 1.023.299 kotizatzaile daude, hau da, ekainean baino 5.846 gutxiago. Urte arteko datuei dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoko afiliazioa 10.661 langiletan igo da 2024ko uztailarekin alderatuta, %1,05 gehiago.

Kontratu finko etena duten pertsonen kopurua % 25 hazi da 2024ko uztailarekin alderatuta, eta data hauetan hezkuntza-sektorean ohikoa den egoerak azaltzen du, neurri batean, langabeziaren igoera txikia, ekainarekin alderatuta. Eusko Jaurlaritzak eta Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailak lanean jarraituko dute Euskadiko enpleguen kalitatea eta lan-baldintzak hobetzeko.

Testuinguru honetan, Enpleguaren Euskal Lege berria funtsezko tresna da langileen eskubideak indartzeko, euskal enplegu-sistema antolatzeko eta erakundeen eta eragileen arteko koordinazioa bermatzeko. Honekin batera, Enpleguaren Euskal Estrategia 2030 izango da aurrerantzean ere lan-merkatua ikuspegi inklusibo, jasangarri eta berritzaile batetik eraldatzeko ibilbide-orria. Bi ekimen hauek indartu egiten dute kalitateko enplegua sortzen duen, desberdintasunak murrizten dituen eta pertsonak politika publikoen erdigunean jartzen dituen Euskadirekiko konpromisoa.




2025eko uztaileko langabe-eskatzailak


	uzt.-2025	eka.-2025	uzt.-2024	Hileko bilakaera		Urteko bilakaera	
				Saldoa	Eb %	Saldoa	Eb %
SEXUA:							
GIZON	43.727	43.295	45.174	432	1,00	-1.447	-3,20
EMAKUME	61.264	60.096	62.891	1.168	1,94	-1.627	-2,59
30 URTEK BEHERA:							
BIAK	17.053	16.634	17.672	419	2,52	-619	-3,50
GIZON	8.442	8.417	8.549	25	0,30	-107	-1,25
EMAKUME	8.611	8.217	9.123	394	4,79	-512	-5,61
30 URTEK 44RA:							
BIAK	29.571	29.040	31.019	531	1,83	-1.448	-4,67
GIZON	10.891	10.727	11.687	164	1,53	-796	-6,81
EMAKUME	18.680	18.313	19.332	367	2,00	-652	-3,37
45 URTEK GORA:							
BIAK	58.367	57.717	59.374	650	1,13	-1.007	-1,70
GIZON	24.394	24.151	24.938	243	1,01	-544	-2,18
EMAKUME	33.973	33.566	34.436	407	1,21	-463	-1,34
SEKTOREA:							
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA	1.780	1.826	1.892	-46	-2,52	-112	-5,92
INDUSTRIA	10.118	9.917	10.202	201	2,03	-84	-0,82
ERAIKUNTZA	5.350	5.377	5.906	-27	-0,50	-556	-9,41
ZERBITZUAK	73.771	72.006	76.048	1.765	2,45	-2.277	-2,99
AURREKO ENPLEGURIK GABE	13.972	14.265	14.017	-293	-2,05	-45	-0,32
LURRALDE HISTORIKOA:							
Araba	17.878	17.908	18.255	-30	-0,17	-377	-2,07
Bizkaia	59.380	58.270	61.258	1.110	1,90	-1.878	-3,07
Gipuzkoa	27.733	27.213	28.552	520	1,91	-819	-2,87
EAE	104.991	103.391	108.065	1.600	1,55	-3.074	-2,84



1.- LANGABEEN ESKATZAILEEN HILEKO SALDOAREN BILAKAERA 2008TIK



2.- ESKATZAILE LANGABEEN URTE ARTEKO SALDOAREN BILAKAERA 2008TIK



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EKONOMIA, LAN ETA
ENPLEGU SAILA

DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA,
TRABAJO Y EMPLEO

Gasteizen, 2025eko abuztuaren 4an